

EUZKO GAZTEDI-EGI-ren ADIERAZPENA EUSKARAREN BIZIBERRITZEAREN AURKAKO EPAIEN AURREAN

Azken urteotan gorakada izan duten euskararen biziberritzearen eta normalizazioaren aurkako epaien aurrean Euzko Gaztedi-EGI-k ondorengo adierazi nahi du:

1. Euzko Gaztedi-EGIk euskararen normalizazioaren aurkako epaien kontrako jarrera irmoa eta desadostasun osoa erakutsi nahi du. Epai horiek guztiak Eusko Legebiltzarraren baitan hartutako erabakien aurka hartu dira, modu arbitrarioan, eta euskaldunon hizkuntza-eskubideak behin eta berriro murriztu baino ez dute lortzen.
2. Euskararen biziberritze prozesuaren inguruan eraikitako adostasun zabalaren kontrako epaiak dira azkenengo aldian eman direnak, eta herri honen adostasun eta babes zabala izan duen lege baten aurka egiten dute, 2016ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea hain zuzen ere.
3. Hizkuntzen kudeaketari dagokion aplikazioak ez du inolako arazorik sortu udalerrietan, herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatzen dituelako. Laburbilduz, epai guzti hauek euskararen normalizazioa oztopatu eta euskal herritarren hizkuntza eskubideak urratzen dituzte.
4. Gainera, azkeneko epaiak (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 179/2019 Dekretuaren hainbat artikulua baliogabetzen dituenak), euskararen normalizazioa bera jartzen du zalantzan. Euskara lehenestearen aurka agertzen da, gaztelania baztertzeko delakoan, baina ez da egia. Herritarrengandik hurbilen dauden erakundeek, Udalek, herritarren hizkuntza-beharrak eta herritarren eskubideak jartzen dituzte beti erdigunean eta euren hizkuntza- eskubideak bermatzen dituzte. Udalek autonomia osoa dute hizkuntza planifikazioaren arloan eta epai honek herri erakundeek duten antolatze gaitasun horren kontra egiten du, euskal Autogobernuaren kontra eginez.
5. Euzko Gaztedi-EGIk euskal gizarteak euskararen normalizazio prozesuarekin aurrera egiteko nahiarekin bat egiten du, eta adostasun zabalarekin onartutako legeria babestu eta aldarrikatzen jarraituko du. Legeria horren kontra egitea politikaren judizializazio hutsa da.

Euzko Gaztedi-EGIk, orain arte egin duen bezala, euskararen defentsan tinko jarraituko du. Horrela, gazte erakunde abertzale eta euskalduna izanik, eta bere printzipioei eta baloreei jarraituz, publikoki adierazi nahi du bat egiten duela Euskalgintzaren Kontseiluak azaroaren 4rako Bilbon deitu duen manifestazioarekin eta bertan izango dela euskaldunon hizkuntza eskubideak aldarrikatzen. Era berean, egikide zein euskal gazteria animatu nahi du euskararen normalizazio eta erabilera aldarrikatzeko beste lurralde edo udalerrri batzuetan deitutako aldarrikapen-ekintza guztietan parte hartzera.